



■ GOIZUETA ARNASA GARA

'Kartzela' telesaila, arnaguneak aitortzeko

Euskerarentzat arnagune diren hainbat herritan ari dira aurkezten Arnasa Gara kanpaina. Goizuetara hilaren 23an iritsiko dira, telesail eta guzti.

AITORTZA egitea da Arnasa Gara kanpainaren aurreneko helburua; euskerarentzako arnagune diren herriei eta bertan euskera eguneroan bizirik mantentzen duten herritarrei aitortza egitea. Hilaren 23an Goizuetan egingen da aurkezpena, eta okasiorako sortu Hiru Damatxok ekoizitako Kartzela telesailaren estreinaldiarekin gozatu ahal izanen da. Aurrerago, aurkezpen publikoak egingen dira. /10

■ KIROLAK

Makazaga gogoan, Behobian

1919ko Behobia lasterketan bigarren egin zuen Modesto Makazaga heraniarrak, eta atzoko ekitaldian oroitu zuten. Bihar, 184 heraniar eta 116 astigartarrek hartuko dute parte. /15

Landaren, zita

Hernaniko Ohorezko Mailak Landaren jokatu du gaur 16:00etan, liderraren aurka. /14

■ ARANO

Perurenak, saioa

San Martin eguna gerturazten ari dela eta, asteburu berezia prestatu da. Gaur, 18:00etan, *Harria*. *Maitasun istorioa* saioa emango du Iñaki Perurenak. /10

■ HERNANI

Mintzodromoa, azaroan

Hilaren 28an egingo da aurten Mintzodromoa. Izen-ematea ireki du Udal Euskaltegiak. /4

GAUR KRONIKAN

Hernani /4-5

Lagunekin proiektua, Hernani Solidarioa, eskelak...

Astigarraga /6-7

Kiroldegia, Ibai Parkea, argazki lehiaketa...

Akademiak /8-9

Urumea /10-11
Cederna, kultura agendak...

Kirolak /13-16

Futbola, Boleibola, Pelota, Pala, Eskubaloia...



Eskola berria, 50 urte pasata ere

Datorren ostiralean murgilduko da Langile ikastola, 50garren urteurreneko ospakizunetan. 1970ean bi irakaslek eta guraso talde batek ereindako haziak fruitu mardulak eman ditu, ezbairik gabe. /2-3

Zorionak
Kattin
Oiartzabal
Soraluze!

9 urte

ESTAMBUL Abenduaren 6an ZUBIA Bilbotik hegaldia zuzena 3 gau 4* hotelean, gosaria + bixita barne	569 €
TENERIFE Abenduaren 10ean Bilbotik hegaldia 7 gau 3* hotelean pensio erdian	535 €
PRAGA Abenduaren 30ean URTE BUKAERA Bilbotik hegaldia 3 gau 4* hotelean, gosaria + bixita barne	695 €
NUEVA YORK Apirilaren 4an ASTE SANTUA Madrilik hegaldia 7 gau 4* hotelean alojamentua	1188 €
LANZAROTE Apirilaren 15ean Bilbotik hegaldia 7 gau 3* hotelean pensio erdian	440 €
UZBEKISTAN Maiatzaren 60 URTETIK GORAKOENTZAT Madrilik hegaldia 8 eguneko bidaiak 3 / 4 * hoteletan, pensio osoa + bixitak barne	1525 €

CLUB MARCO POLO: URTE BUKAERAN BIDAIK TALDEAN
SENEGAL, IRAN, TAILANDIA, JORDANIA

www.bidaibila.eus
Taldeen zuzendaria prezio bereziak

HERNANI
BIDAIK
1. Mota: €
943 33 00 49

JARRAITU:
g+ i+ f+ t+ p+

OINDI

taberna

NAGUSIA, 25
HERNANI
943 55 75 09

restaurant **ZUMORDI** igandeko menua
30 €

biba zuek!
egin diguzuen harrerarekin poza ematen du igandetan ere lan egiteak!
orikolaga kalea, 2 hernani
943 33 60 56

■ HERNANI LANGILE IKASTOLAK 50 URTE

50 urte 'eskola berria' amesten

1970-1971 ikasturtean hasi zuen bere ibilbidea Langile ikastolak. Herritar batek Elizatxon utzitako lokal batean eman zituzten lehenengo eskolak, 8-9 ikaslerekin. Egun, 700 ikasletik gora ditu, eta herriko hiru txokotan ditu gelak: Laubidietan, Meaben eta Bidebietan. Lau irakaslerekin hitz egin du Kronikak, historiaz eta urteurrenaz.

«PAUSO ausarta» eman zuten 1970ean bi irakasle eta guraso talde batek, «ordura arteko eskola mota (eskola tradizionala) gainditzeko borondate garbiarekin». Pauso horren ondorio jaio zen egun Langile ikastola bezala ezagutzen duguna duela 50 urte, eta modu berezian kontatzen dute une honetan ikastolan irakasle dihardutenek.

Izan ere, ikasturte berezia dute aurretik, eta hori islatzen saiatuko dira datorren ostiralek aurrera, ikasle, irakasle eta familiak direnak eta izan direnak.

Aldaketa garaia, baita irakaskuntzan ere

1970-1971koa izan zuten aurreneko ikasturtea egun Langile ikastola deneko lehenengo ikasleek. Dioetenez, 8-9 bat ikasle aritu ziren hasiera horretan, hiru irakaslerekin.

Ikastola bezala, bakarra zegoen momentu horretan, Urumea, eta handik atera ziren hiru irakasle horietatik bi: «irakasle horiek kontatzen zutena zen han ez zeukatela berrikuntzarik sartzeko aukerarik», kontatzen dute.

Momentu hartan gertatzen ari zenak ere asko lagundu



Langile ikastolako ikasleek aurreneko urteetan egindako txangoetako bat.

zuela diote: «kontuan izan behar da Frankismoaren bukaera zela, eta politikoki oso egoera berezia zela. Ezkerreko jendeak bereziki, horren aurka lan haundia egin zuen arlo guztietan, baita irakaskuntzan ere. Gainera, Estatu espainiarrean, eta bereziki, Katalunian, bazegoen Rosa Sensat mugimendu pedagogiko potente bat, hori egosten ari zena», azaltzen dute.

Giro hori ere iritsi zen Euskal Herrira: «hemen *Gordailu* irakasle mugimendua zegoen, saiakera egiten ari zena eskolak berritzatzeko, euskerazko materiala sortzeko...».

Testuinguru horretan jaio zen, beraz, egun Langile ikastola dena. Eta irakasleena ez ezik, gurasoek sorrera horretan egindako ekarpena ere aldarrikatu dute: «gurasoen eskuzabaltasuna ikaragarria izan zen; ekarpen haundia izan zen, bai ideologikoa, baita ekonomikoa ere».

«Sektore guztiei irekia, publikoa, doakoa eta euskalduna»

Hura sortzeko pausoa eman aurretik, ordea, eskolaren nondik-norakoak hausnartzen aritu ziren, bai guraso, irakasle eta baita herritar asko ere. Bertan, «eskola berri baten filosofia eztabaidatu, eta ikuspegi berri bat praktikara eramateko ahalegina egin zen», dio ikastolaren hezkuntza proiektuak.

«Eskola berri baten filosofia eztabaidatu, eta ikuspegi berri bat praktikara eramateko ahalegina egin zen»

Hori kontutan hartuta, eskolaren izaera definitu zuten; euren ustez, eskolak izan behar zuen «sektore guztiei irekia, publikoa, doakoa eta euskalduna». Eta ondorengo beharrei erantzun zuten: «eskola euskalduna izan behar zuela, inguruarekin harreman estuan egon behar zuen eskola bat, familia eta eskolaren arteko harremana bultzatuko zuena, Freinet-en lana aztertu ondoren Metodo Naturala praktikan jarriko zuena, kudeaketa demokratiko eta parte-hartzailea bermatuko zuena eta publikoa».

Hori zehaztuta, 1976. urtean legezatu zen kooperatiba gisa, eta *Langile* izena hartu zuen, eta aurretik aipatutako oinarriak finkatuta geratu ziren.

Lokalen inguruan, aurreneko zailtasuna

Eskolaren inguruan hausnartu zutenean, ikastetxearen erai-kinen eta kokapenaren inguruan ere eztabaidatu zuten: «ez zen inolako masifikaziorik nahi (ez gela barrenean, ezta

ikastetxearen gela kopuruari dagokionez ere), ezta inolako jabetza pribaturik ere», dio hezkuntza proiektuak. Eta irakasleek gehitzen dute: «eskola irekiago bat nahi zen, denontzat, eta auzoetan kokatua, hau da, haurrak bizi diren lekuetan. Hori horrela, auzo guztietan joan ginen gelak zabaltzen».

Elizatxo auzoa izan zuten aurreneko kokaleku; horretarako, «herritar batek lokala utzi zigun». Hurrengo, Floridan, Elizak utzita.

Segituan, ordea, ireki zituzten gela gehiago, izan ere, «urte horietan hazkundera ikaragarria izan zen, kontuan izan behar da, *baby boomen* hamarkadak ere bazirela, eta urtero 7-8 gela ireki behar izan genituen».

Ez zuten behar adina lokalik, beraz, urtero borrokatu behar izaten zuten horiek lortzeko. Borroka horietako batean, ez ziren bakarrik egon: «Publikotasuna lortzeko bideak Udalaren Hezkuntza Batzordera eraman gintuen. Biler horietan, hiltzen ari den Gay Mur ikastetxe publikoaren artean eta gure artean sintonia bat sortu zen. Orduan, ikusirik beraiek hiltzera zijoazela eta gu eraikinen beharrean geundela, erabaki genuen Parador eraikina bi eskolen artean okupatzea, eta haur hezkuntzea bateratua jartzea bertan. Sortu zen nolabaiteko elkarlan bat gure artean, eta

ondorioz, gelditzen ziren ikasle guztiak guregana pasa ziren».

Horren ondoren, Parador ere txiki geratu zitzairen, eta Gay Murreko eraikin txikia hartu zuten, 5 urteko gelak jartzeko.

Heziketa prozesu integralaren alde

Ez da, ordea, Langile ikastolak gauzatutako elkarlan bakarra. 70. hamarkadaren bukaeran, herrian bi haurtzaindegi zeuden, Atzieta eta Txirrita, eta horiekin elkartzeko saiakera bat ere egin zuten. Izan ere, «Langilek beti aldarrikatu du heziketa prozesua integrala izan behar duela, Otik 14ra bitarte». Praktikan behintzat, gauzatu zela diote.

Lehenengo eraikina, 1982ko Kilometroaki esker

Aurreneko eraikina, baina, beranduago eraiki zen. Hain justu, Kilometroak egin ziren Hernanin 1982. urtean, eta festa hark jarri zion lehenengo alea egungo eraikinetako bati: «lortutako dirua Udalari eman zitzaion lurzorua erosi zezan, gero Hezkuntza sailak guretzat eraikin bat eraiki zezan». Dena den, urte batzuk pasa ziren Laubidietak aurreneko eskolak hartu zituen arte.

Eraikin horri, beste bi gehitu zitzaizkion aurrerago: Meabe eta Bidebieta. Egun, hiru eraikin hauek hartzen dituzte Langile ikastolak dituen 700tik gora ikasleak.

Publikotasuna errealitate 1994an

Lehen esan bezala, hasiera-hasieratik izan zuen Langile ikastolak izaera publikorako joera, eta 1994an sartu sare publikoan. Dena den, 1981-1982 ikasturteko zeramikien beste hainbat ikastolekin, pedagogia taldeekin eta beste hainbat norbanakorekin batera, Euskal Eskola Publiko Bakar baten alde lanean, EEPA kolektiboaren barruan: «Eusko Jaurlaritzak egindako legeak ez zituen asebetetzen kolektiboaren beharrak, horregatik, zalantzak eta eztabaidak sortu ziren», onartzen dute. Baina pausoa ematea adostu zuten; beti ere, aldarrikapenak eta kezak alde batera utzi gabe. Horren ondorioz sortu zen *Ikasbatuaz* mugimen-

dua, publikatutako ikastolekin batera sortutakoa (egun *Sortzen Ikasbatuaz* dena).

Amesten jarraitzea, etorkizunerako desioa

50 urte hauek pasa arren, irakasleek uste dute sorrerako oinarriak mantentzen dituela, eta «ez duela iparra galdu». Dena den, haien ustez, egokitzen jakin du; izan ere, «historian ez da ezer geldirik egoten, eta eskolak ere ezin du egon, garai berrietara egokitu behar da». Eta hor egongo da gakoa: «momentu batean hau amets bat izan zen, eta amestu genuenok egin dugu bidearen zati bat, eta gelditzen direnek edo datozenek jarraitu beharko dute bide hori egiten edo amesten». Agian, beste 50 urtez. ||



Laubidietakoa izan zen aurreneko eraikina; 1982ko Kilometroetako diruarekin erosi zuen Udalak lurzorua.

■ 50 URTEURRENEKO PROGRAMA

Ostiralean lehertuko da festa Meabe eta Laubidietan, eta 2020. urtean zehar borobilduko dute

Nahiz eta 50 urteak 2020arekin bete, orain hasi eta ikasturtea bukatu arte ospatuko dute. Datorren ostiralean emango diote hasiera txupinazoarekin, eta hamaika ekintzek emango diote segida.

IKASTURTE berezia izango da honako hau Langile ikastolako ikasle, irakasle eta familientzat, eta are bereziagoa egiteko, programa oparoa osatu dute datorren astean hasi eta ekainera bitarte.

Txupinazoa, datorren ostiralean

Egitarau berezi horri hasiera emateko, txupinazoa egingo dute datorren ostiralean; goizez, Meaben hasiko dute festa, bertako eta Bidebietako ikasleek; eta arratsaldean, aldiz, nagusien txanda izango da, Laubidietan egingo baitute bigarren ekitaldixoa. Hasiera «sinbolikoa» izango dela adierazi dute, ikasle eta irakasleentzat soilik egingo dutena, eta nolabait, hasiera emango

diona aurretik duten guztiari. Herrira ere gerturatuko dute iziritu hori, izan ere, arratsaldean, bingoa egingo dute ikasle ohiek Tilosetan. Kartoi bakoitza euro batean salduko dute, eta jasotako dirua maitzean egingo duten festarako erabiliko dute.

Hainbat hitzaldi, urtea bukatzeko

Txupinazoak, hasierako hitzaldi sortari emango dio hasiera. Aurrenekoa, hilaren 19-an izango da; Langile ikastolako irakasle eta irakasle ohien eskutik, baita MCEPko kide batek eskainiko dute *Freineten eragina Langilen* gaiaren inguruan arituko dira herritarrekin. Laubidietako jangelan izango da, arratsaldeko 17:00etan hasita, baina adierazi dute, herritar guztientzat irekia izango dela.

Abenduaren 10ean ere, beste hitzaldi bat izango dute. Kasu honetan Biterin izango da, herritarrei irekia, baita ere. *Comunicación y autoridad. El papel de los padres hoy en día* izenburupean, Jara Loirak, Cercedako Bosque Escuelako zuzendaria izandakoak eskainiko du. Arratsaldeko 18:00etan izango da.

Hitzaldi sortarekin urte hasieran bukatuko dute. Hain zuzen, otsailaren 15ean, tailer-rra egingo dute egungo ezta-

baida baten inguruan: *Neskak eta mutilak berdin hezitzen al ditugu? Eta sexualitatean?* Horren inguruan aritzeko, bi hizlari izango dira: Amelia Barquín, EHUko Hezkuntza Berdintasunean aditua, eta Nerea Santxo sexologoa. Ondorioen berri emango du, bukaeran, Bea Egizabal klownak. Hau ere Biterin izango da, goizeko 09:30etan hasita.

Bazkariak eta jokoak, ere bai 2020an, aldiz, aisialdiari lotutako ekintza mordoak izango dira. Martxoan izango dira Haur Hezkuntzako eta helduen ikuskizuna, baita Lehen Hezkuntzako ikasleentzat diskofesta, baita hainbat bazkari ere.

Batetik, guraso eta irakasle ohien bazkaria egingo dute. Eta bestetik, ikasle ohien eguna ere bai, azken hau maitzaren 23an izango da.

Orduan, herrian zehar hainbat ekintza egin ondoren, ikasle ohiek sagardotegietan egingo dute otordua. Horretarako, hemendik aurrera jarriko dituzte txartelak salgai, 35 euroan. Erosi nahi duenarentzat, jakinarazi dute ostegunero jarriko dutela postua Biteriko sarreran arratsaldeko 18:30etatik iluntzeko 20:30etara, abenduaren 26an izan ezik.

Ekintza horiez gain, beste

EGITARAUA

Azaroak 15, Txupinazoa. Eskolako irakasle eta ikasleentzat besterik ez. Ondoren, arratsaldean, ikasle ohien bingoa Tilosetan.

Azaroak 19, *Freinet eragina Langilen* hitzaldia. Laubidietako jangelan izango da, arratsaldeko 17:00etan.

Abenduak 10, *Comunicación y autoridad. El papel de los padres hoy en día* hitzaldia, Jara Loira Cercedako Bosque Escuelako zuzendaria izandakoaren eskutik. Biterin, arratsaldeko 18:00etan.

Otsailak 15, *Neskak eta mutilak berdin hezitzen ditugu?* tailerra. Biteri kultur etxean, goizeko 09:30etan.

Martxoan, hainbat jarduera egingo dira: LHko ikasleentzat disko-festa; helduentzako ikuskizuna; eta HHko ikuskizuna.

Apirilean, antzerkia egingo dute eskolaren historiaren inguruan.

Martxoaren 30etik apirilaren 16ra, argazkien erakusketa Biterin.

Maitzean, hainbat ekintza: dokumentalaren aurkezpena, bi saiotan; eta guraso eta irakasle ohien bazkaria.

Maiatzak 23, Ikasle ohien eguna: ibilaldia, hamaiketakoa, bazkaria eta DJa.

Maiatzak 24, herrian zehar jokoak.

Ekainean, eskolako eguna eta urteurrenaren amaiera ekitaldia.

hainbat ere egingo dituzte urte osoan zehar: jokoak haurrentzat, argazki erakusketa, eskolaren inguruko dokumentala... baina horren guztiaren inguruan joango dira, pixkanaka, informazioa ematen.

Abesti berria, Goikoetxea eta Agirrek

Horrez guztiaz gain, 50 urteurreneko ereserkia ere egiten ari dira. Abesti berriaren letra Unai Agirrek egin du, eta Joxan Goikoetxeak musikatu du, baita grabatu eta konponketak egin ere, hori guztia

haien borondatez. Aurrerago aurkeztuko dute abesti berria, eta bideoklipa ere egingo dutela jakinarazi dute.

Kamixetak, txapak eta motxilak, Ikusi Makusin

Honen guztiaren osagarri moduan, kamixetak, txapak eta motxilak egin dituzte, eta horiek saltzen aritu dira azkenealdian. Orain, beste aukera bat ere jarriko dute; datozen egunetan Kale Nagusiko Ikusi Makusi dendara eramango dituzte, eta horiek eskuratu nahi dituenak, bertan erosi ahal izango ditu. ||

■ HERNANI UDALA

Helduen nahiak asetzea helburu duen proiektua abian

Duela hiru aste, 65 urtetik gorakoei zuzendutako, Lagunekin proiektua jarri zen martxan. Helduen autonomia lantzen dute eta aisialdian oinarritutako hainbat ekintza egiten dituzte, helduak aktibo sentiarazteko.

DUELA hiru aste hasi zen 65 urtetik gorakoei bideratutako *Lagunekin* proiektua, eta parte hartzen ari diren helduek, oso gustura daudela adierazi dute.

Maria De Frutos da proiektu honen teknikaria, eta egunero joaten da Goiz Eguzkira, Lagunekin proiektuan parte hartzen duten helduei egunero-kotasuna xamurtzera.

Proiektuaren helburuak

Lagunekin proiektu honek, hainbat helburu ditu, eta haien artean dago helduen autonomia lantzea. Oraingoz talde txikia da, baina Mariak adierazi du, 15 kide izatera heldu nahiko luketela.

Autonomia lantzeaz gain, helduei aktibo egoteko motibazio hori sortu nahi dute. Horretarako egunero rutina bat daukate; 10:00etarako Goiz Eguzkira bertaratu, eta bertan memoria ariketak egin, gimnasia ere egiten dute, marrazkiak, hizkiak, hamaike-takoak eta beste hainbat ekintza gehiago.

Askotan helduak, etxean gelditzen dira, inolako ekintza aktiborik egin gabe, eta horretarako sortu dute Lagunekin proiektu hau. Hernaniko Xabier Lertxundi alkateak adierazi du, hasierako pausua oso zaila dela, «etxetik ateratzea eta zure egunerokotasuna aldatzeko lehenengo pausu hori ematea oso zaila da». Baina argi utzi dute proiektuan parte hartzen duten kideak, oso gustura daudela, «nik orain beharra eta nahi sentitzen dut hona etortzeko, desiatzen egoten naiz».

Lagun+ekin

Izenak ere argi adierazten duen moduan, lagunez inguratu eta ekintzak egitea da asmoa. «65 urtetik gorakoen nahiak asetu nahi ditugu. Beharrak ere bai, baina nahiei ematen diegu garrantzia», adierazi du Maria teknikariak.

Helduei gonbitea luzatu nahi izan diete Lagunekin proiektukoek, denon artean helduen egunerokotasuna au-



Lagunak proiektuan parte hartzen duten kideak, teknikaria eta alkatea.

tonomiaz eta era aktibo batean igarotzeko deia eginez. «Harremantzeko eta bakardadean ez erortzeko proiektu aproposa».

Izena emateko

Zerbitzu sozialetan eman behar da izena, bertaratuz edo telefono honetara deituz;

(943 55 78 54).

Zerbitzu Sozialetara bertaratuz gero, Maria de Frutosgatik galdetu. ■

■ BILGUNE FEMINISTA KONTZENTRAZIOA



Herenegun egin zuten kontzentrazioa Plaza Berrin.

Kontzentrazioa, Balonako erailketa salatzen

Larunbatean Baionan hilik agertu zen emakumearen erailketa salatzen kontzentrazio jendetsua izan zen herenegun iluntzean Plaza Berrin, Hernaniko Bilgune Feministaren eskutik. ■

■ UDAL EUSKALTEGIA MINTZODROMOA

Mintzodromoan izena emateko epea zabalik

Hernaniko Udal Euskategiak aurten ere, Mintzodromoa antolatuko du hilaren 28an eta izena emateko epea irekita dago.

HERNANIKO Udal Euskategiak, berriro antolatu du Mintzodromoa, eta hilaren 28an egingo da. Aurretik izena eman behar da eta apuntatzeko epeak hilaren 22 arte iraungo du.

Helburuak, helburu

Giro paregabeaz gozatzeko aukeraz gain, hainbat helburu ditu mitzadromoak, hala nola, euskara ikasten ari direnak euskaraz hitz egitera animatzea, euskaraz jakin arren, euskaraz aritzeko aukera gutxi dutenei aukera ematea, euskalduna izan

arren, ohituraz euskaraz gutxi egiten duenari motibazioa piztea, eta beste hainbat. «Azken batean elkarrekin euskaraz aritzea» adierazi dute Mintzadromokoek.

Aurten ere, Biterin izango da eta bi saio eskainiko dira, bat goizeko 10:00etan eta bestea arratsaldeko 19:00etan.

Nola eman izena

Izena emateko, Hernaniko Udal Euskategiko telefonora deitu (943 33 18 96), edo euskategia@hernani.eus helbidera idatzi. ■

■ AMHER HERNANI SOLIDARIOA

Giza Eskubideen Nazioarteko Egunaren harira, bilera

Astelehenean egingo da. Bestalde, bihar zortzi, Bizilagunak ekimena egingo da.

DUELA bost urte hasi ziren aurtan ere prestaketa horretarako bilerarako deialdia luzatu AMHER elkarteko kideak, eta nahi diete herritarrei.

Abenduak 10 Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna izanik, eta abenduak 18 etorkinen eguna dela aprobetxatuz, ekin-tza batzuk antolatzen hasteko prestaketa bilera proposatzen dute; astelehenean egingo da, arratsaldeko 18:30etan Biterin.

AMHER-ek herritarren parte hartzea ezinbestekoa dela azpimarratzen du.

Bizilagunak, bihar zortzi Beste urte batez, Bizilagunak egitasmoa ospatuko da datorren igandean eta gaur izango

da proiektuan izena emateko azken eguna, hortaz igandeko bazkari multikulturalaz gozatu nahi duenak gaur eman behar du izena: *amher-sos_racismo@hotmail.com* helbidean edo 671 116 414 telefono zenbakira Whats App bat bidaliz. ||

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

† **MARTIN ANSA IRADI**
Atzo hil zen, 59 urte zituela
- Goian Bego -
Emaztea: Elena Isasa; seme-alabak: Mikel eta Leire Irazusta, eta Xabier; anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, osaba-izebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideek.
Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuet eta arren etor zaitezte **GAUR, LARUNBATA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, SAN JOAN BATAIATZAILEAREN** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.
Hernanin, 2019ko azaroaren 9an
Helbidea: Santa Barbara auzoa
OHARRA: Gorputza ORBEGOZO EHORZKETA TANATORIOAN egongo da eguerdiko 12:30ak arte.




MARTIN ANSA IRADI
- Goian Bego -
Zure alaitasuna eta umore ona beti eramango ditugu gure bihotzetan.
DORRONSORO ISASA SENDIA
Hernanin, 2019ko azaroaren 9an



MARTIN ANSA IRADI
SENIDEAK
Hernanin, 2019ko azaroaren 9an



MARTIN ANSA IRADI
Milaka bidai egin ditugu zurekin. Gidaria zu zinenean, lasai gindoazen, kezkarik gabe. Beti alai, beti laguntzeko prest. Agur lagun, bidai on bat izan dezazula.
MENDIRIZ MENDIKO ZURE LAGUNAK
Hernanin, 2019ko azaroaren 9an



MARTIN ANSA IRADI
Langileko ikasbidaieetan berarekin disfrutatu dugun irakasleok: mila musu Martin.
Hernanin, 2019ko azaroaren 9an



MARTIN ANSA IRADI
Ez zaitugu inoiz ahaztuko, ez zaitugu inoiz galduko gure bihotz barrenean eramango zaitugu betiko.
ZURE BETIKO LAGUNAK
Hernanin, 2019ko azaroaren 9an



MARTIN ANSA IRADI
Beti gure bihotzean. Ez pentsa inoiz ahaztuko zaitugunik.
MIRARI ETA AGURTZANE
Hernanin, 2019ko azaroaren 9an



■ MUSIKA

Kantua eta dantza, egun osoan

Udaletxeko arkupetan elkarteko dei egin du San Joan Konpartsak, 18:30etan, Jeiki Hadi konpainiarekin dantzatzeko. Eguerdiko 12:00etan, bestalde, Kalez Kale Kantari ibili ahal izango da Plaza Berrin hasita. ||

■ BIGARREN ESKUKO AZOKA

Bigarren eskuko azoka, Gay Murren

Bigarren eskuko azoka jarriko dute gaur, beti bezala, goizeko 10:30etatik 13:30ak bitarte. Gaur Gay Murren izango da, Atsegindegiko obrak eta eguraldi txarra direla-eta. ||

■ JAI BATZORDEA

Inauteriei begira, bilera

2020ko inauteriak prestatzen hasteko aurreneko bilerarako deia egin du Jai Batzordeak. Astelehenean izango da, 19:00etan Biterin. Herritarrek gonbidatu dituzte. ||

■ URUMEA HERRIGUNEA

Frikigunea, bihar

Rol eta mahai jolasak izango dira bihar Herriguneko 3garren pisuan, Urumea Frikigunea deitu duten arratsalde planean, 18:00etatik aurrera. Irekia da. ||



FUNERARIA ORBEGOZO BEILATOKIA

Asegururik ba al duzu? Deitu Orbegozora

24 orduko tlfnoa.
943 33 10 20 www.funerariaorbegozo.com

- * Zerbitzu partikularrak eta aseguru etxeekin
- * Beilatokiak
- * Errausketak
- * Lekualdatzeak
- * Eskelak, koroak...




Zentrala - Latsunbe 7, Hernani
HERNANI · ANDOAIN · ASTIGARRAGA · URNIETA · GOIZUETA

■ ANDRE GOBARARIAREN PARKEA

Parke berria irekiko da Astigarragan, antzinako emakume gobarariak omenduz

Hilaren 14an izango da Emakume GobaRaria izeneko parkearen eta eskulturaren inaugurazioa, arratsaldeko 17:00etan. Mari Jose Lacadena eskultorearekin batera, Astigarragan lan horretan aritutako emakumeak ere han izango dira.

DATORREN ostegunean Astigarragako parke berria irekiko da, antzinako emakume gobarariak omenduko dituen, hain zuzen. Parkeaz gain, bertan egongo den eskulturaren inaugurazioa ere izango da datorren osteguneko.

Bertan izango dira Mari Jose Lacadena eskultorea eta, eskultura eraikitzen lagundu duten hainbat emakume astigartar.

Node taldeak dantza garaikidea eskainiko du, beraz egun paregabea izango da. Hala ere, euria eginez gero, beste egun batera pasako da inaugurazioa. ■



Emakume gobararia parkean izango den eskultura.

■ UDALA-KIROLDEGIA

Hainbat hobekuntza Udalak, kiroldegian

Urriaren 29an, Astigarragako Udaleko Tokiko Gobernu Batzordean eta Osoko Bilkuran, kirola, ariketa fisikoa eta kiroldegiari buruzko gaiak onartu zituzten.

ASTIGARRAGAKO Udalak egindako Batzorde eta Osoko Bilkuran, kirola, ariketa fisikoa eta kiroldegiari buruzko gai garrantzitsuak jorratu eta onartu zituzten.

Hori dela eta, alde batetik, brigadarentzat lokal berria erostea onartu zen, Troia ibilbidean lau lokal erosi dira, guztira 719.718,28 euroko inbertsioa izango dena. Honek, egun brigadak kiroldegi azpian dagoen lokalak hustu eta kiroldegiarako erabilitzea ahalbidetuko du.

Gobernu aldaketarekin, aldaketak

Duela hiru urte, gutxi gora behera, Osoko Bilkuran onartu zen brigadaren lokal berri bat eskuratzea, horren harira Astigarragako Udalak honakoa azpimarratu du; «baina gobernu aldaketa gauzatu behar izan da konpromiso

Gehiegizko beroak eraginda, arazo larriak izan ziren hainbat ikastarotan, eta Udal Gobernuak, behin-betiko soluzioa ematea erabaki du.

honi erantzuteko».

Aldaketek ekarriko dituzten onurak

Aldaketa hauek, alde batetik, kiroldegia haunditzeko espazio berria ahalbidetuko du eta bestetik, brigadako joan-etorria kenduta, «oinezkoen eta batik bat haurren segurtasuna areagotuko du», honen inguruan baitaude musika eskola, kiroldegia eta eskola.

Aldaketa hauez gain, beste

Aldaketek hainbat onura ekarriko dizute, «oinezkoen, eta batik bat haurren segurtasuna areagotuko du».

batzuk ere onartu ziren, hala nola, kiroldegian aireztapen eta klimatizazio sareak hobetzea. Beharrezkoak diren aire girotuaren kaxa elektrikoak berritzeaz gain, airea girotzeko ekipamenduak instalatuko dira, zumbako gelan, gimnasioan, tatamiko gelan eta entretenimendu pertsonaleko gelan.

2018ko irailean, gehiegizko beroak eraginda, arazo larriak izan ziren hainbat ikastarotetan, eta Udal Gobernu

berriak horiei behin-betiko soluzioa ematea erabaki du. «Udarako prest egongo dela aurreikusten da».

Osoko Bilkuran, onartutako beste kontuak

Osoko Bilkuran onartu ziren 2020ko aurrekontuetan, kiroldegiaren hobekuntzarako eta herritarren nahi eta beharrak asetzeko partidak aurreikusi dira. Alde batetik, muskulazio gelan, bizikleta estatiko berriak jartzeko 12.000,00 euro erabiliko direla adierazi du Udalak, eta igerileku txikia handitzeko 50.000,00 euro.

Etorkizunera begira

Azkenik, 2020 urtean Udal Gobernuak kiroldegia berri eta igerileku estalia egiteko bideragarritasuna aztertzeko proiektua jarriko du martxan, eta honetarako ere diru kopuru bat aurreikusi du. ■

■ ZINEA

Batman Lego, gaur

Gaur *Batman Lego* jarriko dute Astigarragako Kultur Etxean, arratsaldeko 17:00etan. Publiko guztiarentzat zuzendutako filma da. ■

■ IRAKURKETA KLUBA

Irakurketa saioa, asteartean

Asteartean, irakurketa saioa egongo da, Saioa Isabel Etxeberriak gidaturik. Beñat Sarasola idazlearen *Deklaratzen* ez liburuaren inguruko irakurketa izango da. Parte hartze irekia eta doakoa izango da. ■

■ EAJ-PNV

EAJ-PNVk gabonetako loteria salgai

Astigarragako EAJ-PNV alderdiak, gabonetako loteria dauka salgai, alderdiko lokalean, Norberto Almandoz plazan, hain zuzen. Loteria eskuratzeke, lokala irekita egongo da, ordutegi honetan: astelehen eta ostiraletan arratsaldeko 19:30etatik 20:30etara, eta larunbatetan, eguerdiko 12:00etatik 13:30etara. ■

■ ELKARGUNEA

Elkargunea, etzi

Etzi, Gurasolagunek antolatutako Elkargunea egingo da, arratsaldeko 16:30etatik 18:30etara. Haurrak eta gurasoak kafe baten inguruan elkartuta, euskaraz hitz egiteko ekimena da hain zuzen ere. Doakoa da, eta antolatzaileek gonbitea luzatu nahi izan dute; «berdin du zein den zure euskara maila, euskaraz hitz egiteko gogo baduzu». ■

■ BERTSO AFARIA

Hilaren 29an, Bertso afaria Zipotzan

Hila era paregabean amaitzeko, bertso afaria antolatu da Zipotza Tabernan, azaroaren 29an, arratsaldeko 20:30etan hasita. Agin Laburu eta Iker Zubeldia izango dira bertsotan, eta Txartelak 25 eurotan eros daitezke, Zipotzan bertan. Horrez gain, 20:00etan, presoan aldeko kontzentrazioa ere egingo da J.B Plazan. ■

■ GAZTELEKUA

Gaur Times Up eta bihar toka txapelketa

Gaur Times Up mahai jokoan ariko dira Gaztelekuan, eta biharko berriz toka txapelketa antolatu da. Gonbitea zabaldu nahi izan dute. ■

■ 2020KO EGUTEGIRAKO ARGAZKI LEHIAKETA

Lehiaketara aurkeztu ziren 141 argazkietatik, 13 saritu dira

Ostegunean, Udalak antolatutako 2020ko egutegirako argazki lehiaketako sariak banatu zituzten, eta bertan ikusgai zeuden aurkeztutako argazki guztiak. Guztira zortzi saridun egon ziren.

DUELA aste batzuk hasi zen Astigarragako 2020ko egutegirako argazki onenen lehiaketa. Eta ostegunean egun potoloa izan zen, 141 argazki aurkeztu ziren, eta gehiengonak astigarrarenak izan ziren. Antolatzaileek adierazi dute, emakume eta gizon kopurua «oso parekatua» izan dela.

Osteguneko sarituak

Ostegunean, guztira 8 saritu egon ziren, lehenengo postua Isidro Rodriguez astigarrak lortu zuen, honen lau argazki aukeratu zituzten, bat portadarako eta beste hiru egutegia osatzeko. Bigarren postua, bi astigarrak lortu zuten, Ana Pedrosa eta Naiara Subizak, hauen bi argazki hautatuz.



Ostegunean egin zuten sari-banaketa, kultur etxean.

Gainontzeko bost irabazleak honakoak ziren (hauen argazki bana aukeraturik); Marco Ganuza Astigarragakoa, Sergio Perez Astigarragakoa, Felix Etxeberria Hernanikoa eta Ander Loper donostiarra. ■

■ NEGULEKUAK

Gabonetan ere, Negulekua zabalik

Negulekuak Gabonetan atek zabalik izango ditu etxeko txikientzat. Hala ere, parte hartzeko, aurrez izena eman behar da.

GABONAK ate joka dira, eta gazteek laister hartuko dituzte oporrak. Hori dela eta, Negulekua irekita egongo da, eta hainbat ekintza antolatu dira egun hauek era paregabean igarotzeko.

Aldez aurretik, izena eman behar da. Atzo ireki zen izena emateko epea, eta hilaren 15a arte iraungo du, hau da, datorren ostiralera arte. Kultur Etxean eman behar da izena, goizeko 9:00etatik eguerdiko 13:00etara eta arratsaldeko 15:00etatik 20:00etara. Antolatzaileek adierazi dute, Astigarragako haurrek lehentasuna izango dutela.

Horrez gain, zaintza zerbitzua eskainiko da, goizeko 8:30etatik 10:00etara bitartean,

prezioa 20 euro izanik.

Gabonak Negulekuan

Ez da egunero irekiko Negulekua, abenduaren 23, 26, 27, 30, 31, eta urtarrilaren 2 eta 3an irekiko dira atek, hainbat ekintza egiteko. Hala nola, Olentzero eta Mari Domingiren etorrera eta beste hainbat.

«Harpidetu zaituz»

Xaguxar kideek, webgunean harpidetzeko gonbitea luzatu nahi dute. Lehenengo pausoa; www.xaguxar.org webgunean sartu. Bigarren pausua; harpidetzako lehiatilan klitaku. Hirugarrena eta azkena; zure e-maila sartu. «Zure emailean informazioa eguneratua izango duzu». ■

■ EAJ-PNV PRENTSA OHARRA

EH Bilduk 2020rako aurrekontuak aurkeztu ditu eta EAJ-PNVren ustez, «ez ditu herriaren beharrak asetzen»

Astigarragako EH Bilduk, 2020rako aurrekontuak aurkeztu ditu, eta EAJ-PNV ez dator bat hauekin; aurkeztutako proposamenek ez dutelako herriaren beharrei erantzuten, hala nola, hezkuntza eta uholdeei.

ASTIGARRAGAKO EAJ-PNV, ez dator bat EH Bilduk 2020rako aurkeztutako aurrekontuekin, ez baitie herriaren beharrei erantzuten, hala nola, hezkuntza eta uholdeei. Gainera, EAJ-PNVk adierazi du, aurrekontu hauek ideia berrien falta dutela.

«Ez uholderik, ezta ingurugirorik»

Orain arte, partidu jeltzaleak Astigarragako uholdeen babeserako plana jarri zuen martxan. Plan honek, 4 milioi euroko inbertsioa zekarren. Horren harira, EH Bilduk, 2020rako aurrekontuetan, «ez du zentimo bat bera ere jarriko proiektu horretan».

Atzera botako den beste proiektu bat, *Santiagomendi Landarbaso paisai plana* izango

da. EAJ-PNVk, paisaien hainbat aditu bildu zituen, eta Euskal Gobernuak ere bere oniritzia eman zuen. Honek guztiak, Santiagomendiko ermitaren berreraikitzea zekarren, honen interes kultural eta arkeologikoarengatik.

Hori dela eta, EAJ-PNVk adierazi du EH Bilduk ez duela ez uholdeetan ez ingurumenean inbertituko.

«Hezkuntza, ahaztutako hura»

Partidu jeltzaleak harridura adierazi du EH Bilduren aurrean, «hezkuntza, EH Bilduren proiektu nagusia izanik, aurrekontuetan ez du aipatu ere egiten» adieraziz. «Badirudi, ahaztu egin dutela, orain arte egingadako promesak».

EAJ-PNVk aipatu du, lanean

EAJ-PNVk adierazi du, EH Bilduk ez duela ez uholde ez ingurumenean inbertituko.

jarraitzen dutela eta garrantzia ematen diotela hezkuntza arloari. Hori horrela 67.000 euro Herri Eskolan hobekuntzak egiteko izango direla proposatu dute, «eta nola ez, DBH proiektuarentzat». «EH Bilduk, 25.000 euro bakarrik inbertitu nahi ditu hezkuntzan» gaineratu du alderdi jeltzaleak.

«Txotx-autobusari, agur»

Datorren urterako, garraioan

«EH Bilduk, 25.000 euro bakarrik inbertitu nahi ditu hezkuntzan»

ere aldaketak egongo dira. Hori dela eta, EH Bilduk erabaki du ez duela Txotx-autobusarekin jarraituko. Alderdi jeltzaleak adierazi du, zerbitzu hau gabe uztea astigarrak ez dela justua. «Udalari 7.000euroko inbertsioa soilik suposatzen dio». Azkenekoz egin zen plenoan EAJ-PNVk adierazi zuen, autobus zerbitzuak herritarrei segurtasuna ematen ziela.

«Zabor bilketan, aldaketak?»

Alderdi jeltzaleak argi utzi du,

«EH Bilduk zabor bilketarekin obsesionatua jarraitzen du, eta horrela frogatzen du aurrekontuetan». 80.000 euro baino gehiago inbertituko ditu bilketa zerbitzuen ikerketara. EAJ-PNVk adierazi du, astigarrak hautatu zuten bizimodua zela zabor bilketa, beraz «ez da ezer ikertu behar». «EH Bilduk, beste proiektu batzuk alde batera uzten ditu, zakar bilketaren guduaren sartzeko».

Errentak

Alderdi jeltzalea lasai dago, alkatetza utzi aurretik, Astigarrarentzat garrantzitsuak ziren hainbat proiektu lotuta utzi zituelako, hala nola, alde zaharra berritzea, Arrobitxulo eta Herri Eskola batzen dituen igogailua... eta beste hainbat onura. ■

IKASKETA AKADEMIAK

Eskolan ikasitakoa barneratzeko moduak aukeran, errefortzurako akademietan

Ikasturtea hasita dago, eta aurreneko azterketak gainean dira. Askok jotzen dute akademietara laguntza bila, eta ate-zabalik hartzen dituzte. Dena den, ikasturte hasieran gerturatzea gomendatzen dute.

MARTXA hartuta ari dira jo eta su ikasten, maila guztietako ikasleak. Hasi Lehen Hezkuntzan, eta unibertsitatera arte, makina bat eduki barneratu behar izaten dituzte ikasleek, DBH, Batxilergoa edota Lanbide Heziketa zikloetatik pasata.

Eskolan azaldutakoa ondo ulertzea ez da beti erraza izaten, ordea, aurreneko kolpean. Horrexegatik, akademietara jotzen dute askok. Hernanin ez da aukerarik falta.

Eskola girotik urrunduta, gertuko tratua

Errefortzurako klaseak ematen dituzten akademiak dira Urbieta kaleko Onddi Akademia edota Tilosetan dagoen Akademia. Bietan, maila guztietako ikasleentzako saioak prestatzen dituzte; Lehen Hezkuntza, DBH edota Batxilergo-raino artekoentzako, hain zuzen. Tilosetako Akademian, gainera, unibertsitate mailako ikasleei ere eskaintzen zaie laguntza.

Batean zein bestean, eskolan ikasitakoa ondo barneratzen laguntzea da helburua. Batzuetan, ondo ulertu ez den hori ulertzeko azalpenak ematen dituzte bertako irakasleek; besteetan, berriz, ulertu dena indartzeko, eta, beraz, hobeto barneratzeko. Helburua bat edo bestea izan, hala ere, Onddi Akademian diote lan egitea dela giltza: «ezinbestekoa da eskolan zein etxean ere lan egitea».

Dena ez dago ikasleen esku, ordea. Horregatik, ezinbestekoa den beste elementu bat ere eskaintzen zaie akademian izena ematen dutenei: gertuko tratua eta erosotasuna. «Eskolako girotik pixka bat urrunduanahian, gure helburua da ikaslea akademiara gustora etortzea, horrek asko laguntzen baitie ikasteko garaian». Horregatik, talde txikietan ematen dira klaseak, normalean, eta maila bereko ikasleak bilduta, «denbora ahalik eta ondoen aprobetxatzeko».



Talde txikietan lan egiteko aukera ematen dute akademiek, gertuko tratua emateko. Argazkia: Onddi Akademia.

"Bihotzez ikasten dena, ez da inoiz ahazten"

AKADEMIA ONDDI

LH • DBH • BATXILERGOA

688 719 571

Urbieta 7, Hernani • onddiakademia@gmail.com

AKADEMIA

IKASKETETAN LAGUNTZA

Lehen Hezkuntza, DBH, Batxilergoa eta Unibertsitatea

GAI GUZTIAK

Ezkiaga Pasealekua, 3 Hernani 679 825 517 // 685 729 166

Zientziak, letrak edo bietatik

Zer ikasia ez da falta izaten. Baina batzuk hobeto moldatzen dira letretan; beste batzuk, aldiz, zientzietan. Onddi Akademian eta Tilosetako Akademian gai guztietako ikasgaiak ulertu eta barneratzeko ematen dute laguntza.

Dena den, Onddi Akademian Matematika, Fisika eta Kimika edota Ekonomia bezalako ikasgaietan laguntzeko daude espezializatuta, bereziki. Irakasle gehienak ingeniari gazteak eta ikasleak izaten dira, eta ikastean sortzen diren arazoak erronka gisa hartzea proposatzen dute, «ikasten ikasi eta ikasgaia gainditzeko».

Zalantzak edozein direla ere, eta gaia bat edo beste izan, ikasgaiak ondo ulertu eta ikastea bera erraztea dute helburu irakasleek.

Azterketekin edo gabe, ez egin kale

Motorrak ondo berotuta, azterketa garaia gerturatzen ari denean jotzen dute askok erre-

Akademiak lagungarri badira ere, irakasleek azpimarratzen dute ezinbestekoa dela eskolan zein etxean ere lan egitea.

fortzua eskaintzen duten akademietara, ordura arte ondo ulertu ez den hori argitzeko asmotan. Garai ona izan daiteke, azken zalantzak argitu ahal izateko.

Hala ere, lehenago hasteko gomendatzen dute. Izan ere, batzuk notak jasotzean konturatu dira kontzepturen batekin ihes egin diela; azterketetan espero baino emaitza kaskarragoak lortzean, hain zuzen. «Askotan ikasgairen batekin arazoak dituztenean, notak jakitean etortzen dira. Eta komeni izaten da horri aurre hartzea. Gure gomendioa da,

urte osoan gerturatzea, eta zalantzak sortzen diren heinean argitzea», diote Akademian.

Nota onekin ere bai

Errefortzurako akademiak ez dira, soilik, azterketak gainditzeko laguntzeko akademiak. Badira ikasleak ikasgai jakin batzuetako notak hobetu nahi dituztenak.

Izan daiteke unibertsitateko sarbide probarako noten batezbestekoa igo nahi dutelako, edota ondoren egin nahi den ikasketa mota horretan gehiago jakitea lagungarri izango delako. Ikasle horiek ere aukera badute Onddi Akademian edota Tilosetako Akademian, dagoeneko badakiten hori indartu eta hobetzeko.

Azken batean, errefortzu klaseak ematen badira ere, helburu nagusia da ikasleek ikas dezatela, ikasten duten eduki hori ondo barneratu dezatela, momentuan edota etorkizunean egingo dituzten ikasketetan baliagarri izan daitezen. ||

■ HIZKUNTZA AKADEMIAK

Ama hizkuntzaren pare, atzerrikoak

Ez da ezinezkoa. Ingelesa edota frantsesa bezalako hizkuntzak menderatu daitezke, nor bere ama hizkuntzaren pare. Horretarako, ume-umetatik ikasten hastea izan daiteke giltza, ikasteko berandu inoiz ez bada ere.

MAKINA bat akademia topatu daitezke Urumea bailaran, atzerriko hizkuntzak ikasteko. Horien artean, beste hizkuntza batzuk ere indartzen ari dira, baina ingelesa eta frantsesa izaten dira gehienek ikasi nahi izaten dituztenak.

Gauza berriak ikasteko ez da sekula berandu Baina egia da umetan, hazteko garian, errazagoa izaten dela eduki berriak barneratzea. Horregatik, Urumea bailaran aurkitu daitezkeen Kids&Us edota London School akademietan, umetatik hizkuntza berriak ikasten hasteko garrantzia azpimarratzen dute.

Atzerriko hizkuntzak, ama hizkuntza bezain erraz
Hain zuzen, hori izan zen Kids&Us akademiaren sorrerako ideia: haurrei ingeleseko klaseak ematea, urtebete egiten dutenetik hasita. «Gure ikasketa prozesuari esker, hizkuntza berria ikasten da ama hizkuntza bera ikasten den modu berean. Urtebetetik aurrerako haurrak hizkuntza berria erabiltzen den giroan murgiltzen dira, modu globalan, mugarik gabe, baina haien adinera egokitutako tesuinguru eta egoeretan».

Batzuei goizegi dela iruditu dakieke, baina Kids&Us akademian argi dute: «jaino eta aurreneko urteetan, ikasteko gaitasun oso handia izaten dugu.

Gainera, 0 eta 3 urte arteko etapan, hizkuntza deszifratzeko mekanismoak puntu onean izaten dira, eta Kids&Us metodologiak horixe aprobetxatzen du, hizkuntza berria barneratzen laguntzeko».

Hizkuntzak ikastea, maila bakoitzera egokituak
Umetatik hizkuntza berriak ikasteko aukera ematen dute London School akademian ere. Hurrekin lau urterekin hasten dira lanean, eta klaseak akademian bertan emateaz gain, beste toki batzuetara mugitzeko zerbitzua ere ematen dute bertako irakasleek. Horrela, London School-eko irakasleek klaseak ematen dituzte, adibidez, Astigarragako Ametsa haurtzaindegian, urte bete-ko umeentzat.

Dena den, sekula ez da berandu hizkuntza berriak ikasteko ere. Horregatik, London School akademian maila desberdinetara egokitutako klaseak ematen dituzte, haur, gazte zein helduentzako: ingeles orokorrekoak, azterketa jakinak prestatzeko klaseak edota klase partikularrak. Horrez gain, udaran ikastaro trinkoak ere izaten dira aukeran, eta atzerrira ikastera joateko aukera ere ematen dute. Era berean, enpresa eta eskoletara egokitutako klaseak ere ematen dituzte, eta baita hizkuntzak irakatsiko dituzten irakasleak formatzeko saioak.



Ingelesa aisialdi giroan ikasteko aukera ematen diete, umei. Argazkia: Kids&Us.

Hau guztia, ingelesez egiteaz gain, frantsesez egiteko aukera ere izaten da.

Hernanin eta Astigarragan, besteak beste
Batean zein bestean, aukera dago ingelesa edota frantsesa ikasteko klaseak jasotzeko, hainbat herritan. Kids&Us Hernanin bertan topatu daiteke, Antzolan. London School, berriz, Astigarragan, Urnietan, Oiartzunen edota Donostian.

Hain zuzen, London School akademiako Urnietako zentroak 25 urte bete ditu aurten. Eta ospatzeko gehiago ere badute. Izan ere, hil honetan, Award Ceremony ekitaldiak egingo dituzte, Cambridge azterketak gainditu dituzten ikasleei ziurtagiriak emateko. «London School of Languages-eko ikasleen %95ek ingeleseko azterketak gainditzen dituzte», ziurtatu dute. Donostian eta Oiartzunen hilaren 15ean egingo dira ekitaldiak; Urnieta eta Astigarragako ikasleentzat, berriz, hilaren 22an, 18:15etan Urnietako Lekaion. ||

18 urtera arte ingelesa ikasteko metodo naturalena

the English Formula

Ingelesa urte letik aurrera

Antziola Auzoa 7 HERNANI
673-812-144 / 943-841-786
hernani@kidsandus.es

Kids&Us
language school HERNANI

London School of languages

Closer than you think

INGELESA
FRANTSESA

london-school.com

DONOSTIA
943 507 507

URNIETA
943 00 92 91

ASTIGARRAGA
943 55 11 13

OIARTZUN
943 49 33 77

HELDUAK ETA HAURRAK
ENPRESAK ETA ESKOLAK
IRAKASLEEN FORMAKUNTZA
ATZERRIAN KURTSOAK
AZTERKETA OFIZIALAK

Cambridge CELTA
Baimendutako zentro bakarra
Euskal Herrian

■ GOIZUETA UEMA

‘Arnasa Gara’ euskerarentzat, Goizuetako herrian ere

Hilaren 23an aurkeztuko dute Goizuetan ‘Arnasa Gara’ kanpaina, euskerarentzako arnagune diren herriak eredu hartzeko.

HIZKUNTZA baten biziraupenerako eta biziberritzeko ezinbestekoak dira arnaguneak, Joshua Fishman soziolinguistak *Reversing Language Shift* (1991) liburuan zehaztutakoaren arabera, eta Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea (UEMA) lanean aritu da azken urteetan euskeraren arnaguneak ezagutu eta zaintzen. Hain zuzen, 2018an Jaurlaritzarekin eta Nafarroako Gobernuarekin batean arnaguneak ezagutzeko ikerketa egin zuen, eta orain, Arnasa Gara kanpaina jarri du martxan, herriz herri.

Goizuetara hilaren 23an iritsiko dira. Helburua da arnaguneek euskerarentzat eta Euskal Herriarentzat duten garrantzia nabarmentzea, eta arnagune diren herrietako biztanleak «ahalduntzea, aitorza eta kontzientziarazioa indartzea, jabetu daitezkeen gune horiek euskararen indarberri-tzean duten garrantziaz».

‘Kartzela’ serie digitala, eskolako jangelan

Kanpaina iraila bukaeran aurkeztu zuten Azpeitiako Sanagustin kulturagunean UEMAK, Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoa eta Bizkaiko Foru Aldundiek, eta Lekeitioko eta Aramaioko udalak, eta orduan, herriz herri ibili dira. Aurreneko fase honetan, arnagune diren herrietako biztanleei aitortza egin nahi zaie, «euskeraren normalkuntzan eredu» direla jabetu daitezkeen. Horretarako, *Kartzela* serie digitala sortu dute, Hiru Damatxo ekoiztetxearekin, eta Goizuetan hilaren 23an ikusi izanen da, arratsaldeko 19:00etan, Xalto eskolako jangelan.

Zazpi kapitulu osatzen duten lana da *Kartzela* serie digitala, eta arnaguneei buruzko fikziozko lana izanen da. Protagonistak BECen harrapatuta dauden sei lagun dira, denak, arnaguneetako herritarrak: Iratxe Urkiaga aktorea, Lekeitioko Mararen paperean; Sambou Diaby, Zumaiako Ibarenean; Juanen Saralegi, Lesakako Juanenean; Erika Olaizola, Azpeitiako Iunerenean; Amair Epher, Donibane Garaziko Ekhirenean; eta Ainhoa Etxe-



Iraila bukaeran Azpeitian aurkeztu zuten kanpaina, herriz herri abiatzeko.

Hiru Damatxo ekoiztetxeak ekoiztitako ‘Kartzela’ serie digitala ikusi ahal izanen da Goizuetan hilaren 23an, 19:00etan eskolako jangelan.

barria, Ondarroako Garaziren paperean. Pixkanaka topo egiten dute beraien artean, eta eraikinetik nola atera pentsatzen hasiko dira, eta hainbat galdera sortuko zaizkie.

Gidoia egiteko erabili dira arnagune diren herrietan 2018ko ikerketa hartan egindako parte-hartze prozesutik ateratako ondorioak. Besteak beste, adinekoek gazteekiko dituzten aurreiritziak; euskera eta euskal kultura berezkoak dituelako baloratzen ez duen gaztea, jarrera kontzienteagoa dutenen aurrean; beste jatorri bateko herritarrekiko dauden aurreiritziak eta haiek integrazioan dituzten oztopoak; besteak euskeraz egiteko norberak daukan gaitasuna; euskalkia utzi eta euskera batua erabiltzeko joera, ulertuko ez dutelakoan; hitanoaren erabilera eta generoa...

Aurkezpen honetan serieko aurreneko bi kapituluak ikusi ahal izanen dira, aurkezle batek gidatutako saioan, eta

ondoren, herritarrek aukera izanen dute ekarpenak egiteko. Ordu eta erdiko saioa izanen da.

Durango Azokan, aurkezpen publikoa

Arnagune diren 22 herritan *Kartzela* serie digitala aurkeztu ondoren, kanpainaren bigarren faseari emanen zaio hasiera. Durango Azokan izanen da hori; orduan aurrera, seriearen aurkezpen publikoa egingen da, eta abenduaren erdialdetik aurrera, Euskal Herri osoarentzat izanen da ikusgai.

Aurreneko fasean indarra arnaguneetako biztanleei aitortza egitean jarri nahi den bezala, bigarren fase honetan Euskal Herriko gainerako euskaldunei zuzendu nahi zaie mezua, arnaguneak ezagutzera eman eta daukaten garrantziaz jabetu daitezkeen.

250.000 biztanletik gora, lurgune euskalduna osatzen

Arnasa Gara arnagune diren 22 herritan aurkezten ari dira orain. hala ere, gehiago dira UEMAK gaur egun biltzen dituen udalak; 86, zehazki. Guztien artean, 253.000 biztanle inguruko lurgune euskalduna osatzen da. Horrez gain, azpimarratu dute «kontuan hartu behar» direla «UEMAko kide ez diren gainontzeko arnaguneak, guztien artean osatzen baitute Euskal Herriko arnaguneen mapa». ■

■ ARANO SAN MARTIN EGUNA



Bideo emanaldiarekin inauguratu zuten erakusketa, ostegunean.

Harriari buruz Perurena, San Martinen harira

‘Harria. Maitasun istorioa’ saioa emanen du, 18:00etan. Gero, taloak izanen dira.

BADATOR San Martin eguna; azaroaren 11. Horren harira, euskara zerbitzutik, saio berezia antolatu dute gaurko. Iñaki Perurena harrijasotzaile ezagunak *Harria. Maitasun istorioa* saioa emanen du, arratsaldeko 18:00etan hasita, Maisuenean.

Ez da gaurko ekitaldi bakarra izanen, hala ere. Izan ere, Perurenak saioa bukatuta, talo jatea izanen da.

Landa eremuko emakumeak gogoan, erakusketa

Bestalde, urrian izan zen Landa Eremuko Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira, hainbat ekitaldi antolatu dira orduan Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitateak bultzatuta. Hauek borobiltzeko, *Baratze Kritikoa* erakusketa jarri da

Aranon, eta biharkoa izanen da hau ikusteko azken eguna.

Goiz eta arratsalde, gaur eta bihar

Erakusketa zehazki Mugarik Gabe elkarteak antolatutakoa da, eta elikadura burujabetza dauka gai nagusi, genero ikuspegitik begiratuta. Kritikoa deitzen diote, «harago begiratzen» dutelako, «inguratzen gaituena eta gure burua zalantzan jarriz».

Hasiera batean, hilaren 18ra arte ikusi ahal izanen zen erakusketa, baina egutegian aldaketak egin dira, eta bihar arte izanen da ikusgai, Maisuenean. Gaur, goizez irekiko da, 10:00etatik 14:00etara. Bihar, berriz, goiz eta arratsalde; 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. ■

■ ARANO-GOIZUETA GIZARTE ZERBITZUAK

Jubiloteka martxan berriz, etzitik

Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitateak jakinarazi du berriro ere martxan jarriko dela Jubiloteka zerbitzua, Arano, Goizuetan, Leitza eta Arason. Astelehenean aurrera izanen da martxan. ■

■ EREÑOTZU BAZKARIA

Eskolan ibilitako emakumeek, bazkaria

Gaur elkartuko dira bazkaritarako, Ereñotzuko eskolan ikasitako emakumeak. Errioguardan jarri dute hitzordua, egun-pasa ederra egin eta kontu zahar eta berriak partekatzeko. ■

■ EREÑOTZU UDALA

Gripeari aurre egiteko prest, 18 lagun

Pasa den astean aukera izan zen Ereñotzun bertan, gripearen aurka-ko txertoa jasotzeko. Aurten, 18 lagunek aprobetxatu dute aukera. ■

■ GOIZUETA KULTUR AGENDA



Mus eta Truk txapelketetako irabazleek sari ederrak eskuratu zituzten, larunbatean.

Jubilatuek ez ezik, umeek ere festarako aukera izanen dute azaroan

Mus eta Truk txapelketetako sariak banatuta, festa eguna izan zuten jubilatuek igandea. Hurrena, umeen txanda izanen da.

AGENDAREKIN aurrera egiten ari dira goizuetarrak. Azaroari jubilatuek eman zioten hasiera, eta datozen egunetan adin guztietako herritarrentzako izanen da zerekin entretenitu.

Legarreta eta Goizueta, eta Salaberria eta Goizueta, mus eta trukean txapeldun

Larunbatean jokatu zen 65 urtetik goitikoen mus eta truk txapelketa, Umore Ona elkarrean. Museko txapeldunak izan dira Manolo Legarreta eta Joxe Goizueta, eta bigarren sailkatuak, Antonio Zubeldia

eta Juanito Eskudero. Trukean, berriz, Felix Salaberria eta Pakita Goizueta izan dira irabazleak eta bigarrenak, Maria Pilar Arratibel eta Dolores Eskudero.

Horrela hasi zuten jubilatuek asteburua, eta igandean, festa giroan murgildu ziren bete-betean. Umore Ona Pilota Elkarrean antolatutako Txapelketako aurreneko partiduekin gozatu ondoren, meza izan zuten, eta bazkaria gero, Luis Elizegiren musika emanaldiarekin borobilduta. Entrenituta pasa zuten igandea.

Azukrearen kontsumoari buruz, ostiralean

Datozen egunetan ekitaldi gehiago ere izanen dira, kasu honetan, adin guztietako herritarrei zuzenduak. Hasteko, ostiralean, *Azukrearen gazi-gozoak* hitzaldia izanen da eskolako jangelan, 19:00etan, azukrearen kontsumoaren inguruko argibideak emateko. Gero, larunbatean umeentzako jolasak izanen dira, frontoian.

Hurrengo asteburuan Arnasa Gara aurkeztuko da, eta Feriak borobilduko du hilabete, azken larunbatean. ||

■ EREÑOTZU UDAZKEN KULTURALA



Atzo hasitako ogi tailerra gaur borobilduko dute, dastaketarekin.

Ogi tailerra bukatuta, Demode Quarteten musika

Gaurkoa tailerreko azken eguna izango da. Kontzertua gaur zortzi emango dute.

BUKAERA aldera gerturatzeari da Udazken Kultureko egitaraua. Dena den, azaroan sartu berritan, hainbat ekitaldi emango zaie hasiera, eta abenduaren ere izango da zerekin segi.

Gaur bertan, ogi ekologikoa egiten ikasteko tailerreko bigarren saioan hartuko dute parte izena eman zutenek. Atzo egin zuten aurrenekoa, eta gaur borobilduko dute ikastaroa, ogi dastaketarekin, eta segidan egingo duten bazkariarekin.

Demode Quartet, elizan

Azaroarekin jarraituta, hurrengo ekitaldiak ere zehaztuta daude. Datorrena, hilaren 18an izango da, larunbatere-

kin; Demode Quartet laukoteak kontzertua emango du elizan, arratsaldeko 19:30etan hasita.

Kantu ezagunak abesten dituen laukotea da Demode Quartet, eta emanaldi guztietan umorea izaten dute ardatz.

'Black is Beltza' eta bakarrizketa

Agenda osoa borobiltzeko, hilaren 29an *Black is Beltza* pelikula ikusi ahal izango da 22:00etan, ludotekan.

Bukatzeke, berriz, *Bakean dagoenari* bakean utzi bakarrizketa saioa egingo dute Mirari Martiarenak eta Idoia Torregarai abenduaren 13an, 22:00etan. ||

■ ARANO-GOIZUETA CEDERNA GARALUR

Landa garapenerako laguntzak, hilaren bukaerara arte

Azaroaren 25era arte eskatu daitezke laguntzak, lehen sektorea, basogintza, eta natura eta ondareari balioa ematea bultzatzeko.

NAFARROAKO Gobernuak eta Landa Garapenerako Europako Nekazartza Funtsak (LGENF) finantzatuta, 647.181,86 euroko poltsa izanen da, Nafarroako Mendialdeko gizarte eta eko-

nomia garapenean lagunduko duten proiektuak finantzatzeko. Laguntzak azaroaren 25era arte eskatu ahal izanen dira.

Finantzatzeko diren ekimenez ardatz estrategiko batzuk izan beharko dituzte, besteak beste, herritarrak tokian-tokian mantendu eta finkatzea, lehen sektorea eta basogintza, natura baliabideen ustiapen jasangarria, zerbitzuak garatu eta ondareari balioa ematea eta enpresak finkatzen eta enplegua sortzen laguntzea.

Deialdi hau 'Cederna Garalur Elkartearen Tokiko Garapen Parte-hartzailearen Estrat-

egia (TGPE), 2014-2020' izena duen estrategian txertatzen da. Hain zuzen, dagoeneko 4,8 milioitik gorako inbertsioa egin da programa honen baitan, toki-garapenerako 151 proiektu publiko eta pribatutan.

Eskaerak, Cedernaren web orrian

Laguntza eskatzeko bete behar diren baldintzen berri, eta bete beharreko eskaera orriak Cedernaren webgunean lortu daitezke: www.cederna.eu. Teknikari arduradunarekin harremanetan jartzeko modua ere bertan topatu daiteke. ||



Landa garapenerako proiektuen artean lagundutakoa da Uraren Ibilbidea.

HAUTESKUNDE OROKORRAK

21.485 herritar bozkatzera deituta berriro ere, Kongresu eta Senatuko ordezkariak aukeratzeko

Aurten bigarren bezala emango dute herritarrek botoa Kongresuko eta Senatuko ordezkariak hautatzeko.

BIHAR dute zita Urumea bailarako herritarrek hautetsontziekin, Espainiako Kongresua eta Senatu osatuko duten ordezkariak hautatzeko egingo diren hauteskunde orokorretan botoa emateko. 15.294 daude deituta Hernaniko hautesleketan; 5.031 Astigarragan; 477 Ereñotzun; 583 Goizuetan; eta 100 Aranon.

Gobernua osatzeko akordioak aurrera eramateko ezintasunak direla-eta deitu zituen urteko bigarren hauteskunde orokorrak Pedro Sanchez Espainiako presidentea (PSOE) -apirilaren 28an egin ziren aurrekoak-.

Bost eta sei ordezkari Kongresuan, eta launa, Senatuan

Hernani, Ereñotzu eta Astigarragakoe, Gipuzkoako sei ordezkari hautatu beharko dituzte haien botoaren bitartez, Espainiako Kongresurako. Aranoek eta Goizuetakoek or-

dea, Nafarroako bost ordezkari bozkatu beharko dituzte.

Senaturako, aldiz, launa ordezkari hautatu behar izango dituzte Hernaniko, Ereñotzuko eta Astigarragako herritarrek, baita Goizuetan eta Aranoek ere.

Hautagaitza gehiago nafarrek, Senaturako

Apirilaren 28ko hauteskundekin alderatuta, hautagaitza berberak izango dituzte gipuzkoarrek, Kongresu eta Senaturako. Denera, hamabi izango dira: EH Bildu, PSE-EE, EAJ-PNV, EB, Ciudadanos, ELAK, PACMA, Podemos-IU, Recortes Cero-GV, PUM+J, PP eta Vox.

Eta Nafarroan, aldiz, hamarna: EH Bildu, NA+, PSOE, PACMA, Geroa Bai, PUM+J, PCTE, Podemos-IU, Recortes Cero-GV eta Vox. Aurreko hauteskunde orokorrekin alderatuta, hiru hautagaitza gehiago aurkeztu dira Nafarroan Senaturako. ||



Astigartarrek Herri Eskolan eman beharko dute botoa, apirilaren 28an bezalaxe.

DIPUTATUEN KONGRESUA: GIPUZKOA

- Euskal Herri Bildu (EH Bildu).**
Zerrenda-burua: Mertxe Aizpurua Arzallus.
- Partido Socialista (PSOE-PSE-EE).**
Zerrenda-burua: Odón Elorza González.
- Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco (EAJ-PNV).**
Zerrenda-burua: Joseba Andoni Agirretxea Urresti.
- Esaños En Blanco-Aulki Zuriak (EB).**
Zerrenda-burua: Daniel Lizarralde Aguirre.
- Ciudadanos-Partido de la Ciudadanía (Cs).**
Zerrenda-burua: José Manuel Gil Vegas.
- Euskadiko Langileen Alderdi Komunista/Partido Comunista de los Trabajadores de Euskadi (ELAK/PCTE).**
Zerrenda-burua: José Alberto Jiménez González.
- Partido Animalista Contra el Maltrato Animal (PACMA).**
Zerrenda-burua: Susana Pérez Benito.
- Elkarrekin Podemos-Unidas Podemos (Podemos-IU).**
Zerrenda-burua: Pilar Garrido Gutiérrez.
- Recortes Cero-Grupo Verde**

(Recortes Cero-GV).

Zerrenda-burua: María Ángeles Alberdi Bergareche.

- Bidezko Mundurantz/Por Un Mundo Más Justo (PUM+J).**
Zerrenda-burua: Iratze Buztinza Vivanco.
- Partido Popular (PP).**
Zerrenda-burua: Iñigo Arcauz Ascargorta.
- Vox.**
Zerrenda-burua: Juan De Dios Dávila Garijo.

DIPUTATUEN KONGRESUA: NAFARROA

- Euskal Herria Bildu (EH Bildu).**
Zerrenda-burua: María Isabel «BEL» Pozueta Fernández.
- Navarra Suma (NA+).**
Zerrenda-burua: Sergio Sayas López (UPN).
- Partido Socialista (PSOE-PSE-EE).**
Zerrenda-burua: Santos Cerdán León.
- Partido Animalista Contra el Maltrato Animal (PACMA).**
Zerrenda-burua: Uxue Goñi Del Río.
- Geroa Bai (GBAI).**
Zerrenda-burua: María Roncesvalles Solana Arana.
- Por Un Mundo Más Justo/Bidezko**

Mundurantz (PUM+J).

Zerrenda-burua: Ignacio Agustín Aranzadi De Miguel.

- Partido Comunista De Los Trabajadores De España (PCTE).**
Zerrenda-burua: Pedro López Ibarrola.
- Unidas Podemos (PODEMOS - IU).**
Zerrenda-burua: Ione Belarra Urteaga.
- Recortes Cero-Grupo Verde (RECORTES CERO-GV).**
Zerrenda-burua: Inemoha Gonzalez Calero.
- Vox (VOX).**
Zerrenda-burua: Adolfo Alustiza Romero.

SENATUA: GIPUZKOA

- Euskal Herria Bildu (EH Bildu).**
Zerrenda-burua: Gorka Elejabarrieta Díaz.
- Partido Socialista de Euskadi (PSOE/PSE-EE).**
Zerrenda-burua: Lucio Hemando Albistegui.
- Euzko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco (EAJ-PNV).**
Zerrenda-burua: María Isabel Vaquero Montero.
- Esaños en Blanco-Aulki Zuriak (EB).**
Zerrenda-burua: Luis García Molina.

5. Ciudadanos-Partido de la Ciudadanía (Cs).

Zerrenda-burua: Rocío Galiana Naranjo.

- Euskadiko Langileen Alderdi Komunista/Partido Comunista de los Trabajadores de Euskadi (ELAK/PCTE).**
Zerrenda-burua: Jakes Iñarra Lasagabaster.
- Partido animalista contra el maltrato animal (PACMA).**
Zerrenda-burua: Iván Ruiz García.
- Elkarrekin Podemos-Unidas Podemos (Podemos-IU).**
Zerrenda-burua: Javier Ezkeretza Pajares.
- Recortes Cero-Grupo Verde (Recortes Cero-GV).**
Zerrenda-burua: Jordi Martínez Rigol.
- Bidezko Mundurantz/Por Un Mundo Más Justo (PUM+J).**
Zerrenda-burua: Agurtzane Iraeta Zabala.
- Partido Popular (PP).**
Zerrenda-burua: Alejandro Saenz Muriel.
- Vox.**
Zerrenda-burua: Carlos María Bell Clerico.

SENATUA: NAFARROA

- Euskal Herria Bildu (EH Bildu).**
Zerrenda-burua: Oihan Mendu Goñi.

2. Navarra Suma (NA+).

Zerrenda-burua: Ruth Goñi Sarriés (CS).

- Partido Socialista (PSOE).**
Zerrenda-burua: Antonio Magdaleno Alegria
- Partido Animalista Contra El Maltrato Animal (PACMA).**
Zerrenda-burua: María del Mar García Blanco.
- Geroa Bai (GBAI).**
Zerrenda-burua: Esther Cremaes Mayorga.
- Por Un Mundo Más Justo/Bidezko Mundurantz (PUM+J).**
Zerrenda-burua: María Rosario Elcuaz Viscarret.
- Partido Comunista De Los Trabajadores De España (PCTE).**
Zerrenda-burua: Enmakon Boyero Vicente.
- Unidas Podemos (PODEMOS-IU).**
Zerrenda-burua: María Ángeles Roldán Marrodán
- Recortes Cero-Grupo Verde (RECORTES CERO-GV).**
Zerrenda-burua: Santiago Casal Ribas.
- Vox (VOX).**
Zerrenda-burua: René Demarch Fariñas.

■ HERNANI BOLEIBOLA

Bost partidutik hiru gaur, Hernaniko kiroldegian

Eguerdiko 13:00etan bi partidu jokatu dituzte nesken bi taldeek, infantil mailakoek eta kadete mailakoek.

AURREKO asteburuko atsedenaren ondoren, aste honetan ekingo diote, berriro ere, Ligari, boleiboleko taldeek. Asteburu honetan, denera, bost partidu jokatu dituzte; horietatik hiru, kiroldegian bertan izango dira.

Etxean, nesken taldeak besterik ez

Etxean jokatu duten hiru taldeak emakumezkoenak izango dira. Eguerdiko 13:00ean daukate aurreneko hitzordu bikoitza; izan ere, bi partidu jokatu dira, orduan.

Infantil neskek jokatu dute, alde batetik, Peñafloren aurka.

Bestetik, Arantzazuko Ama



Kiroldegian arituko dira senior mailako neskek.

taldearen kontra jokatu dute kadete mailako neskek.

Arratsaldean ere izango da boleibolarekin gozatzeko aukera. 16:00etan hasita, senior emakumezkoen txanda izango da. Zarauzko Lizardi taldearen kontra neurtuko dituzte indarrak haiek.

Beste bi zita, kanpoan

Kanpoan, aldiz, bi partidu jokatu dituzte. Donostiako Pio Barojan arituko da infantil nesken taldea, Summa Aldapeta 2-ren kontra, 10:00etan.

Senior mutilak, aldiz, Gasteizen lehiatuko dira, Udaparen kontra, 16:30etan. ||

■ ASTIGARRAGA-HERNANI FUTBOLA



Hernaniko mutilak etxean ariko dira; neskek eta Mundarro, kanpoan.

Aukera politak, asteburuan

Hernaniko mutilak etxean ariko dira; neskek kanpoan, eta Mundarroko mutilak ere bai. Denek gaur jokatu dute.

HERNANIKO mutilen bi taldeak etxean jokatu dute gaur. Ohorezko Erregional taldea Elgoibarren kontra ariko da, 16:30etan. Bost puntu gehiagorekin eta bost postu gorago egonda, eta etxean jokatu, abantaila aprobetxatzea izango dute helburu. Jubenil Nazional ligako taldea, bestalde, Antiguokoren kontra ariko da, 18:30etan. Puntu bat gehiagorekin, bi postu gorago dago arerioa, eta etxeko babesaren jokatzeko aprobetxatzen saiatuko da Hernani.

Neskei dagokienez, Euskal Ligako taldeak aukera polita dauka, sailkapenean aurretik duten Erandioko taldeari kokka bat kentzeko; haiek laugarren dira, 16 punturekin, eta hernaniarrak bosgarren 12rekin. Aurrez aurre izango duten taldea, berriz, Leioako Emakumeak, zazpigarren. Sarriena jokatu da partidua, 15:30etan.

Mundarroko gorengo taldea, berriz, Mitxelinen ariko da gaur, 17:15etan, Ostadarren kontra. Bost postu gorago dago aurkaria, baina hiru puntukoa da aldea. ||

■ HERNANI ESKUBALOIA

Infantil mutilak eta jubenil neskek gaur, etxean

Infantilek goizean jokatu dute, 11:00etan; eta jubenilek, aldiz, 18:00etan.

GAUR eta bihar izango dituzte asteburu honetako norgehiagokak Hernani Eskubaloi Taldeko kideek. Denera, zortzi partidu izango dituzte; horietatik, hiru izango dira gaur, eta bost, aldiz, bihar.

Gaurko bi, kiroldegian

Gaur jokatu dituzten hiru partidutik bi Hernanin izango dituzte: bata, goizean izango da; eta bestea, aldiz, arratsaldean.

Infantil mutilak izango dira jokatzeko aurrenekoak; goizeko 10:00etan hasita, Elgoibar izango dute aurkari, Leoka taldekoek.

Arratsaldean, aldiz, nesken

talde nagusia izango da lehiatuko dena; Hernaniko One Telecom ET taldeak, Ereintza taldea hartuko du. Arratsaldeko 18:00etatik aurrera izango da, kiroldegian.

Andoainen izango da gaurko beste partidua; eguerdiko 12:45etan izango da, Sesa Tools infantil nesken taldearen eta Leizaranen artean.

Otarra aurten ere, zozketan

Gabonetako zozketa egingo du, aurten ere, Hernaniko Eskubaloi Taldeak, eta dagoeneko salgai dituzte errifak 2,5 euroan. Zozketatuko duten otarra Anexo Elektrotresnaken jarriko dute, laster. ||



Jubenil nesken taldeak gaur arratsaldean jokatu du kiroldegian.

I HERNANI ERRUGBIA

Sailkapeneko aurrenekoaren aurka Hernani, etxean

Gaur Landaren dauka zita Hernanik, sailkapenean aurreneko postuan dijoan VRAC taldearekin, arratsaldeko 16:00etan.

GAUR arratsaldeko 16:00etan, Hernanik VRAC taldearen aurka jokatu du, eta herriaren laguntza beharko du herna-niar gazteek, sailkapenean lehenengo postuan dijoan taldearen aurka baita gaurko partidua.

VRAC taldea, aipatu moduan, aurrenekoa dijoa sailkapenean 29 punturekin eta Hernani azken postuan dago, 3 punturekin.

Aurreko partiduan, ia garaipena

Aurreko astean, sailkapeneko hirugarren taldearen aurka jokatu zuen Hernanik, eta garaipena ez zuen urruti izan. Hala ere, 36 eta 25eko emaitzak denboraldiko zazpigarren porrota ekarri zuen.

Gaurkoan, indarrez beteta daude herna-niar gazteak, eta gaurko partiduan dena eman-

Landarbasok etxetik kanpo jokatu du bihar, Gaztediren kontra, denboraldi hasierako partidu erabakigarrietakoa.

go dute, herritarren laguntzarekin. Beraz, Hernaniko errugbi taldeak, arratsaldeko 16:00etan Landarera jeisteko deia egiten du, taldeak etxeko bultzada behar baitu.

Landarbaso Gasteizera bihar, beharrezkoa den garaipenaren bila

Euskal Ligan, bestalde, emakumezkoen Landarbaso taldeak etxetik kanpo jokatu du asteburuko jardunaldia. Bihar



Aurreko asteburuan, Hernani Alcobendasen aurkako partiduan.

izango da, goizeko 11:00etan hasita, Gamarran, Gasteizko Gaztedi taldearen kontra.

Partidu erabakigarria izango da hau neskentzat. Izan ere, Gaztedi da aurkari zuzenetako

bat, Uni Bilbao edota Bera Bera bezalaxe. Gasteiztarrak sailkapenean 6garren postuan daude, Landarbaso baino bat beharago, eta puntu bakarreko aldearekin: 9 dauzkate haiek,

eta 10, Landarbasok. Aurreneko buelta honetan bosgarren postu horri eustea izango dute helburu gipuzkoarren taldeko jokalariek. Bide onean ari da taldea. ||

I ASTIGARRAGA-HERNANI PELOTA

Finalerdiak jokoan dauzkate pelotariak gaur, eskuz eta palaz

Gipuzkoako finalerdiak jokatu dituzte gaur Mundarroko jubencil eta nagusiek eta Hernaniko nagusiek, eskuz. Palan, beste bi.

ASTEBURUAN partidu garrantzitsuei egin beharko diete aurre bailarako pelotari eta palistek. Goizuetako Umore Onako pelotariak atzo jokatu zituzten etxeko txapelketako bigarren jardunaldiko partidua, eta herna-niar eta astigartarrek ere atzo hasi zuten asteburua.

Gaur, berriz, Gipuzkoako finalerdietako hainbat partidu jokatu dituzte, bai palaz eta baita eskuz ere, herna-niar eta astigartarrek; denek, kanpoan, nagusien hirugarren mailako palistek izan ezik.

Palako finalerdiak, Beotibarren eta Hernanin

Gipuzkoako finalerdietako batzuk palaz jokatu dira gaur. Batetik, nagusien bigarren

mailako mutilak ari dira Tolosaren aurka, arratsaldeko 18:00etan hasita, Beotibarren. Legarretak, Zubimendik eta Ramosek osatzen dute herna-niarren taldea.

Bestetik, hirugarren mailan ere finalerdi izango du jokoan Manterolak, Zurutzak eta Arandiak osatutako talde herna-niarrak. Etxean jokatu dute hauek, 15:00etan hasita, Danok Baten aurka.

Eskuz kanpoan, finalerdi guztiak

Finalerdiak dauzkate jokoan eskuz ere, pelotari herna-niar eta astigartarrek.

Nagusien mailan, Loidi eta Santxez astigartarrek Oiarpeko Ugalde anaiei egin beharko diete aurre gaur, Oiarzunen,

arratsaldeko 17:45etatik aurrera jokatu den partiduan. Hodei Exposito eta Markel Lizeaga herna-niarrak, berriz, etxean ariko dira gaur, 16:30etan hasita, Zegamako tartaloetxe elkarteko Azketa eta Elizegiren kontra.

Beste finalerdi bat ere badaukate jokoan gaur pelotari astigartarrek; kasu honetan, jubencil mailan. Tolosako Altuna eta Ugartemendia gainditu beharko dituzte Lizeaga anaiek, 16:00etan hasita jokatu den hirugarren partiduan, Donostiako Atanon.

Bestalde, Apaolaza eta Insausti senior herna-niarrak Oiarzunen jokatu dute gaur, 15:00etan; finalerdi ez bada ere, orain arte bezala, garaipenak pilatzen segitzea dute helburu. ||



Ocon eta Kerejeta, Manex Arizmendi entrenatzailearekin, dominak jantzita.

I HERNANI ATLETISMOA

Kerejeta eta Oconek, podiuma

Pasa den igandean Isidoro Unzuetaoren Oroimeneko 50garren krosetan izan ziren Hernani Atletismo elkarteko korrikalari alebin eta infantilak, Zarautzen. Marka politak egin zituzten, eta baita podiuma ere: hirugarren egin zuten Enara Kerejeta eta Lur Ocon alebinek. ||

I HERNANI WATERPOLOA

Sestaoren aurka gaur, etxean

Mutilen talde nagusiak etxean jokatu du asteburuko partidua. Sestao izango du aurrez aurre, gaur, eguerdiko 13:00etan hasita kiroldegian jokatu den partiduan. ||

■ URUMEA BEHOBIA-DONOSTIA LASTERKETA

Modesto Makazaga hernaniarra gogoan, Behobiaren 100garrenean

1919ko aurreneko Behobia-Donostia lasterketan bigarren izan zen Pipiritakoa. Bihar 184 hernaniar eta 116 astigartar aterako dira.

BEHOBIA-DONOSTIA lasterketak 100 urte bete ditu aurten. Bihar egingo da lasterketa, eta bertan ez da Urumea bailarako korrikalaririk faltako, ohi bezala. Goizeko 09:45etan aterako dira aurreneko parte-hartzaileak, gurgildun aulkian, eta 09:50etan patinatzaileak. Ondoren, 10:10etatik aurrera hasiko dira korrikalariak.

Parte-hartzaile horiek guztien artean, 184 hernaniarrak izango dira, eta beste 116 astigartarrak. Kronikak, urtero bezala deialdia egin du baila-

Kronikak argazkia aterako die korrikalariei bihar, 07:50ean Hernaniko atletismo pistan.

rako korrikalariekin argazkia ateratzeko. Bihar, goizeko 07:50etan egingo da argazkia, Hernaniko atletismo pistaren ondoan, Behobiarako autobusa hartu aurretik.

Aurreneko hernaniarra, Modesto Makazaga
Aurten 100 urte egin ditu lasterketak, eta omenaldia egin zitzaien atzo Donostiako Udalean, esanguratsuak izan diren parte-hartzaileei.

Horien artean, Modesto Makazaga, Pipiritakoa omendu zen. Hernaniarrak aurreneko Behobian hartu zuen parte, 1919an, eta bigarren izan zen, Juan Mugertzarengandik 22 segundo-ra. Haren errainak, Iñaxi Agirrek jaso zuen garaikurra, eta bihar, birlobak moztuko du zinta. ■



Iñaxi Agirre, Makazagaren errainak jaso zuen atzo, garaikurra.

ERRUGBIA

MUT. OHOREZKO MAILA	Hernani-Vrac	Landaren	Gaur 16:00
NSK. EUSKAL LIGA	Gaztedi-Landarbaso Orkili	Gernatan	Bihar 11:30
MUT. 23 URTEZ AZPIKOKAK	Hernani-Vrac	Landaren	Gaur 14:00
KADETAK (SUB 18)	Hernani-Gaztedi	Landaren	Gaur 11:00
INFANTILAK (SUB 16-HEG)	Hernani-Gaztedi	Aietan	Gaur 10:30
INFANTILAK (SUB 16-IPAR)	Ras Bidart Bo-Hernani	Bidarten	Gaur 14:00
ALEBINA M14	Lagunartekoa	Lakaan	Gaur 10:00
BENJAMINAK M12 + M10	Gipuzkoako Bilkura	Lakaan	Bihar 10:30

FUTBOLA

MUT. OHOREZKO ERREG.	Hernani-Elgoibar	Zubipen	Gaur 16:30
MUT. ERREG. PRET.	Ostadar-Mundarro	Mibolinan	Gaur 17:15
MUT. ERREG. PRET.	Aierri-Hernani	Pizetan	Gaur 15:30
NSK. LURRALDE MAILA	Hernani Tolosa	Usabalen	Bihar 11:30
MUT. ERREG. 1GO MAILA	Vasconia-Mundarro	Puion	Bihar 18:00
MUT. JUB. LIGA NAZIONALA	Hernani-Antiguoko	Zubipen	Gaur 18:30
MUT. JUB. OHOR. MAILA	Ekintza-Hernani	Beton	Gaur 17:20
MUT. JUB. OHOR. MAILA	Mundarro-Vasconia	Zakumendegin	Gaur 15:30
MUT. JUB. 1GO MAILA	Hernani-Bilabona	Zubipen	Bihar 17:00
MUT. JUB. 1GO MAILA	Touring-Mundarro	Fanderian	Bihar 17:15
NSK. KAD. OHOR. MAILA	Hernani-Amiak Bat	Zubipen	Gaur 10:00
MUT. KAD. OHOR. MAILA	Hernani-Antiguoko	Zubipen	Bihar 19:15
MUT. KAD. OHOR. MAILA	Vasconia-Mundarro	Puion	Bihar 12:30
NSK. KAD. 1GO MAILA	Martutene-Mundarro	Martutenen	Gaur 13:30
MUT. KAD. 1GO MAILA	Mundarro-Hernani	Zakumendegin	Gaur 09:30
NSK. INF. OHOR. MAILA	Antiguoko-Mundarro	Beton	Bihar 17:20
MUT. INF. OHOR. MAILA	Touring-Hernani	Fanderian	Gaur 11:00
MUT. INF. 1GO MAILA	Hernani-Umieta	Zubipen	Gaur 12:00
MUT. INF. 1GO MAILA	Mundarro-Petritegi	Zakumendegin	Gaur 13:15
MUT. INF. TOKIAK	Hernani-Danena	Zubipen	Bihar 12:00

MUT. INF. TOKIAK	Mundarro-Internacional	Zakumendegin	Gaur 11:30
MUT. ALEB. A	Hernani-Ostadar	Zakumendegin	Bihar 10:00
MUT. ALEB. A	Mundarro-Euskalduna	Zakumendegin	Bihar 11:30

SASKIBALOAIA

MUT. GIPIUK. 1GO MAILA	Hernani-Take Orbela	Hernanin	Gaur 18:00
MUT. GIPIUK. 1GO MAILA	Mundarro-Debasket	Astigarragan	Gaur 18:00
NSK. GIPIUK. 2. MAILA	Cafes Aitona-Mundarro	Paco Yoldin	Gaur 18:00
MUT. GIPIUK. 3. MAILA	Inter de Mitente-Hernani	Benta Berrin	Gaur 16:00
NSK. JUBENILAK	Mundarro-Ibaeta Bera Bera	Astigarragan	Gaur 16:00
MUT. JUBENILAK	Hernani-Ama Guadalupekoa	Hernanin	Gaur 16:00
MUT. KADETAK	Hernani-Easo	Hernanin	Bihar 12:00
MUT. KADETAK	Mundarro-Debasket	Astigarragan	Gaur 11:30
MUT. KADETAK	Bengara Soraluze-Mundarro	Bergaran	Bihar 16:00
MUT. INFANTILAK	Hernani-Lamamendi Atxos GBS	Hernanin	Bihar 10:00
MUT. INFANTILAK	Mundarro-Oiarso Haundi	Astigarragan	Gaur 11:30

BOLEIBOLA

NSK. EUSKADIKO LIGA	Hernani-Lizardi Zarautz	Hernanin	Gaur 16:00
MUT. EUSKADIKO LIGA	Hernani-Udapa Aranbizkarra	Gasteizen	Gaur 16:30
NSK. KADETAK	Hernani-Arantzazuko Ama	Hernanin	Gaur 13:00
NSK. INFANTILAK	Hernani-Summa Aldapeta	Pio Barojan	Gaur 10:00
NSK. INFANTILAK	Hernani-Peñaflorida	Hernanin	Gaur 13:00

ESKUBALOAIA

NSK. JUBENILAK	Laubide Iturgintza-Mundarro	Legazpin	Gaur 17:45
NSK. JUBENILAK	Hernani-Ereintza	Hernanin	Gaur 18:00
MUT. JUBENILAK	Urola-Hernani	Zumarragan	Bihar 11:00
NSK. KADETAK	Umieta-Hernani	Umietan	Bihar 10:00
MUT. KADETAK	Ereintza-Hernani	Beraunen	Bihar 10:30
MUT. KADETAK	Hernani-Bera Bera	Hernanin	Bihar 12:00
NSK. INFANTILAK	Leizaran-Hernani	Alluralden	Gaur 12:45
MUT. INFANTILAK	Hernani-Elgoibar	Hernanin	Gaur 11:00

MUT. INFANTILAK	La Salle Legazpi-Hernani	Legazpin	Bihar 12:00
-----------------	--------------------------	----------	-------------

PALA

MUT. NAGUSIAK 2. MAILA	Tolosa/Legameta-Zubimendi-Ramos (Hernani)	Beotibarren	Gaur 18:00
NSK. NAGUSIAK 3. MAILA	Manterola-Zurutza-Arandia (Hernani)/Danok Bat	Hernanin	Gaur 15:00

ESKU PELOTA

MUT. NAGUSIAK	Oiarpe/Xo-Insauti	Oiarzunen	Gaur 15:00
MUT. NAGUSIAK	Arizmendi-Xo/Inburre	Hernanin	Gaur 12:00
MUT. NAGUSIAK	Exposito-Lizeaga/Tartaloetxe	Hernanin	Gaur 16:30
MUT. NAGUSIAK	Ugalde anaiak (Oiarpe)/Loidi-Santex (Mundarro)	Oiarzunen	Gaur 17:45
MUT. JUBENILAK	Albana-Ugartemendia (Tolosa)/Lizeaga anaiak (Mundarro)	Atanon	Gaur 16:00
MUT. KADETAK	Martin-Manterola/Gaillamerantz	Hernanin	Gaur 15:30
MUT. KADETAK	Deskarga-Alegria/Oiarpe	Hernanin	Gaur 16:00
MUT. INFANTILAK	Aide Zaharra/Xuban Iturbe	Egian	Gaur 16:00
MUT. INFANTILAK	Ianitz Gorroategi/Izurun	Hernanin	Gaur 11:10
MUT. INFANTILAK	Aiur Elizazu/Oiarpe	Hernanin	Gaur 11:30
MUT. INFANTILAK	Unax Pascal/Sendiekintza	Hernanin	Gaur 10:30
MUT. INFANTILAK	Martin Alberdi/Behar Zana	Hernanin	Gaur 10:50
MUT. ALEBINA	Gure Txeru/Oinatz Gaskon	Getarian	Gaur 16:00
MUT. ALEBINA	Eple/Manex Alberdi	Errenterian	Gaur 16:20
TXAR. PISBATUAK	Iturbe-Azpeltia/Lapke	Amaiozen	Bihar
TXAR. PISBATUAK	Exposito-Eizegi/Ioritz Arrieta-Sarasa	Tolosan	Bihar 12:00
TXAR. PISBATUAK	Unax Uitz/Xo	Lizartan	Bihar 12:30

ERREMONTEA

1GO PARTIDUA	Matxin III-Zubiri/Juanenea-Agirezabala	Galarretan	Gaur 16:00
2. PARTIDUA	Eberga-Ebeberria III/Zeberio II-Ion	Galarretan	Gaur 16:00
3. PARTIDUA	Segarola-Endika/Ansa II-Azpiroz	Galarretan	Gaur 16:00
4. PARTIDUA	Goiñotena V-Aruarte/Aldabe-Labaka	Galarretan	Gaur 16:00

WATERPOLOA

MUT. SENORRAK	Hernani-Sestao	Kirodegian	Gaur 13:30
---------------	----------------	------------	------------

EGURALDIA GAUR Bustitik segiko du, baina zaparradak tartekatua izango dira. Goiz-eguerdi partean gutxiago botako du; aratsaldean, gehiago. Haizeak ez du hain gogor joko eta epeldu egingo du. **Min.9° / Max.13°**

BIHAR Berrito gordinduko da eguraldia. Zaparradak noiznahi botako ditu, tarteka, zarra-zarra, eta ekaitza eta kazkabarra ere egin dezake. Haize hotz eta zakarra ibiliko da, eta hoztu egingo du. **Min.7° / Max.10°**



TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622 **AUTOBUSAK:** Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **Aguado** ASTIGARRAGA Nagusia, 21 **943 550327** Gaeuz: **Aldabe** Perkaiztegi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**



URUMEA GALARRETA JAI ALAI

Erremontea ezagutu eta bizitzeko bisitak aukeran, herritarrei irekiak

Bisita gidatuak antolatuko ditu Galarretako frontoiak azaroaren 30ean, eta abenduaren 7an eta 14an.

HIRU larunbatetan izango da erremontea gertutik ezagutzeko aukera: azaroaren 30ean eta abenduaren 7 eta 14an.

Galarretako Frontoira joateko bisita gidatuak antolatuko dira, eta animatzen direnak kantzara jaisteko aukera izango dute, baita pilotaren abiadura eta zesta eskuan izatearen bizipena gertutik ezagutzeko aukera ere.

Bisitaren lehen atalean, pilotalekuaren eta bere historia-aren kontakizuna egingo da, erremontearen araudia eta jokatzeko era ezagutzeko Ondoren, kantzara jaitsi, zesta jarri eta harekin jolastearen sentazioak bizituko ditu bisitariak.

Pilota jokoan nola aritzen den eta pilotari nola eman behar zaion ikasiko da, dena pilotari baten eskutik, pilota-

Kantzara jeisteko aukera izango da, zesta jantzi eta pilotari baten laguntzaz pelotan egiteko aukera.

ren abiaduraren erakustaldia eginez.

Gainera, pilota jokoaren xehetasunak azalduko dira, eta erremontean aritzeko zestak eta pilotak egiteko artisauek nolako prozedura darabilten ere erakutsiko da. Hori guztia nahikoa ez balitz, apustuak egiteko sistema zein izan ohi den ere azalduko da.

Bisita gidatua, partidua barne
Binakako txapelketa azaroaren 14an hasiko da, hortaz bisita gidatuak antolatzen direnako hasita izango dira. Bisitariak partidua gozatzeko aukera ere izango dute, nahi izanez gero bisita gidatua amaitu ostean bertan geratzeko aukera eskainiko zaielako.

Izen ematea, Kronikan
Bakarka, binaka edo taldean eman daiteke izena, eta 25 lagun biltzean taldea itxiko da. Horretarako, interesa duenak Kronikara gerturatuta eman dezake izena, kronika@kronika.eus helbidera mezu bat bidaliz, 943 33 08 99 telefono zenbakira deituz edo 688 660 714 mugikorrera WhatsApp mezu bat bidaliz, bisitaren eguna zehaztuz. ||



Erremontearen xehetasunak ezagutzeko aukera izango da bisita gidatuetan.

IRAGARKI MERKEAK

- Salgai Audi A4 1.9 TDI**, 5 atekoa eta 2003 urtekoa. 251.000 km ditu eta ITVa eta errebisioak eguneratuta. Egoera onean. 3.500 €. **Deitu: 638 756 854**
- Garaje marra alokatzen dut Gartzia Goldaraz kalean**, Correo-seko eraikinean. 75 € hilean. **Deitu: 687 841 817**
- Neska euskalduna behar da Hernaniko taberna batean lan egiteko.** **Deitu: 679 476 992 (15:30-18:30)**
- Vanessa Soodeen:** Coaching-psikologia, psikoterapia-Gestalt, Mindfulness, bakarkako terapia, bikote-terapia... **Deitu: 666 197 211** vsoodeen@gmail.com
- Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**

